

GEU

2,40 €

2009ko irria

199

herriak
gesaltza-añana

euskara
arabako euskara


gizartea
txapa ahotsa
sos arriaga

historia
juana pz de lazarraga



ensueños Ioinaz

madre vedruna 18 vitoria-gasteiz 945 13 38 38



Bai Euskarari Ziurtagiria

balioa eta berrikuntza · valor e innovación

1.600 entitate baino gehiago ziur daude



ZADORRA - ETXEA

AGURAIN

NEKATUR

DONOSTIA



ERANDIO
ARLAN

SOKOA

HENDAIA



ELKAR

IRUÑEA



IURRETA
IURRETA INSTITUTUA



MENDIA OPTIKA



ziurtagiriaren **elkartea**

902 430026

baieuskarari.org

geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 199

geugaia

gesaltza-añana. gatzagak 7-11

geugaia II

txapa ahotsa 14-17

bat4tan

sos arriaga parkea 22-25

euskara&h^a

juana pz de lazarraga 28-29

arte txokoa

krea. argazki tailerrak-periscopio 30-31

euskara&historia

arabako euskara, arabera

eta mendebaldeko euskara 33-35

beste:

euskaltasunean 12

gaztezulo 20

agenda, kaletik, proposamenak,
araba bixotzian, historia zutabea,
errezeta eta umorea




7-11



14-17



22-25



28-29

GEU

GEU aldizkaria | sorrera-data: 1992 | helbidea: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | kazetariak: edurne begiristain, ainhoa arriaga, naroa cuesta eta ane pedruzo | azaleko argazkia: edorta sanz (imvg-la ciudad pintada) | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orratzeketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola | araba bixotzian: josean morlesin | kolaboratzaileak ale honetan: kike fdz. de pinedo, maider lacalle, imanól garcía&ignacio carrera, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), andoni rodriguez (diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola) eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | etiketak eta publizitate fk.: edurne begiristain, ebz | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

www.geugasteiz.com



zeregin euskaraz [09urria]

GEU ELKARTEA



GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

POEMAK DENBORAREN GAINEAN

poesia errezitaldia
leire bilbao, igor estankona eta edu zelaieta

URRIAK 9 OSTEAGUNA

20:00 HIKAAETENEAN

'ZULO BAT URETAN' - SUSA 2008

iñigo aranbarren liburuaren inguruko solasaldia

URRIAK 29 OSTEAGUNA

20:00 HIKAAETENEAN



KULTUR ERROTA

'IRAN' DIAPORAMA

mila gallastegi & asier arantzabal

URRIAK 27 ASTEARTEA

20:30 PARRAL TABERNAN

GEUREKIN MENDIRA

SANTA EULALIA - MARINDA (984 M) -

URBINA DE BASABE

kuartango (araba) / goizeko mendi iteera

URRIAK 25 IGANDEA

9:00 LOVAINA PZn

arduraduna: kike 945140158

geurekinmendira@gmail.com

MINTZALAGUNA

09/10 IKASTURTEA - IZEN-EMATEA

URRIAK 15 - 31

<http://www.mintzapraktika.org/blogos>

[fera/blogak/index.php?blog=14](http://fera.blogak/index.php?blog=14)

mintzalaguna@geugasteiz.com



BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 09

URRIAK 3-ABENDUAK 13

www.txapelketanagusia.eu

KMK 09

URRIAK 4, DONOSTIAKO ZURRIOLA

IKASTOLAN

www.kilometroak.net

NAFARROA OINEZ 09

URRIAK 18, ETXARRI ARANATZ

www.nafarroaoinez.net



MONTEHERMOSO. HEZKUNTZA PROGRAMA

TAILER-BISITAK

ikuspegia aldatuz: erakusketa baliabide
hezigarri gisa
hitz egin dezagun: hizkuntza artearen bidez
ikastea
gasteizko ikus-entzunezko eta plastikazko
heziketa: irudia irakurtzen ikastea
berdintasun lantegiak
presta ezazu zure erakusketa
zinema eta giza eskubideen gelak
zentzua emanez: hezitzaileentzako
formakuntza

TAILERRAK

artistekin tailerrak

txikiart

BISITALDIAK

bisitaldi gidatuak (asteazkenetan 19:30 +
larunbatetan 13:00 euskaraz)
taldeentzako bisitaldiak (alde aurreko izen-
ematea; euskaraz+gaztelaraz; asteartetik
ostiralera 10:00-14:00 + 18:00-21:00)
hau ez da bisita bat
gasteiz garaikideak (urriak 22, abiapuntua
artiumen, 18:30; leku mugatuak)

info+ & izen-ematea: 945 16 18 59 /

actividadeseducacion@montehermoso.net

www.montehermoso.net

EUSKHARAN

AMAIA ZENTROAN & SAN MARTINEN

berriak

<http://euskharan.mundua.com/category/berriak/>

2009-2010 ikasturteko matrikulazioa martxan

aiton-amonak

<http://euskharan.mundua.com/category/aiton-amonak/>

oinarizko euskara tailerra, bilobekin erraz

komunikatzeko

mintza-praktika

<http://euskharan.mundua.com/category/mintza-praktika/>

5. urratsetik aurrera, astearte & ostegunetan,

3 orduetara, 1 aukeratzeko

begiraleen formakuntza:

<http://euskharan.mundua.com/category/formakuntza/>

zuzendari eta begirale ikastaroak euskaraz

gazteen txokoa

<http://euskharan.mundua.com/category/gazteen-txokoa/>

kuadrilategi. lagun artean euskaraz ondo

pasatzeko. ostiral arratsaldetan

haurren txokoa

<http://euskharan.mundua.com/category/haurren-txokoa/>

larunbatetan haurrentzat zinema & tailerrak,

urritik aurrera

tailerrak

<http://euskharan.mundua.com/category/matrikulazioa/>

txalaparta, trikitixa, bertsogintza, egurgintza,

etxeko elektrizitatea...

MATRIKULAZIOA:

<http://EUSKHARAN.MUNDUA.COM/CATEGORY/MATRIKULAZIOA/>

URRIAREN 5A BAINO LEHEN, AMAIA

ZENTROAN

info+:

euskharan kultur elkarte

amaia zentroa

benito pz galdos pz. z/g 01002

gasteiz

tel: 945 288275-945 010517 fax: 945

288275

euskharan78@euskalnet.net

<http://www.euskharan.mundua.com>



AIARALDEKO KULTUR ZIRKUITUA

www.topagunea.org

AIARALDEKO KULTUR ZIRKUITUA

Basalarrina elkarte

Jose Mari Carrere

Ipuin bidaariak

URRIAK 7. 18:00. Audioko Basalarrina

egoitzan

Basalarrina elkarte

Ixabel Millet

Animaliak mintzo ziren garaian

URRIAK 21. 18:00. Audioko

Basalarrina egoitzan

Hogeitalau elkarte

Tenderete Txotxongilo Taldea

Gazaporen istorioak

URRIAK 25. 17:00. Arespalditzako

udaletxean

ZERNOLA OLINPIADA

euskal herriko dbh-ko 1. eta 2. mailako
ikasleentzako ZIENTZIA & TEKNOLOGIARI
BURUZKO LEHIAKETA

www.zernola.net / www.elhuyar.net



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Euskeraz Arabo BAI

www.euskoalkartasuna.org/c/san-prudencio-3-gasteiz-erdialdea

azkarprint
imprenta / imprimategia

Landazuri, 7 - 945 23 30 01

GASTEIZ

◆ INPRIMATEGIA ◆

DIBUtec

Papertegi teknikoa

Landazuri, 7 - 945 13 06 07

Eramun
Argazki - Estudioa

Heracio Fournier, 23
(laborategia) 945 13 71 02

Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**

bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33
tfnoa. 945 25 02 39

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Araba Firaldo

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza **GASTEIZ**

El Clarete
jatetxea

unai eta patxi fdz. de retana

zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Goian Industrialdea
TI/Fxa: 945 465 921
TI. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
TI: 945 12 08 88 - 01001 - **GASTEIZ**

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 **GASTEIZ**

Iturrieta
ASKALDEGIA IREKITA **Sagardotegia**

OSTEGUNETIK AURRERA IREKITA.
Gaintzeko egunak, enkarguz.
bertako sagardoa

<http://iturrietasagardotegia.blogspot.com/>

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) TI.: 945 445 385 - 685721593

primatze-lanak ploterrak postalak logotipoak
karpetak aldiak irratia irratia irratia
goak ingurua irratia irratia irratia
iak egutegia irratia irratia irratia


bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz

dalvez

GATZ HARANA, GESALTZA-AÑANA HERRIAREN HISTORIA ERABERRITZEN

GESALTZA-AÑANA 1987AN MONUMENTU HISTORIKOA BILAKATUTAKO FENOMENO GEOLOGIKO APARTA BILTZEN DUEN GUNEA DA, GASTEIZTIK 30 KILOMETRO INGURURA KOKATUTA DAGOENA. URTEAK PASA DIRA GATZAK HISTORIAKO GARAI BATEAN ZUEN URRE TXURI IZENA GALDU ETA EGUNEROKO ELEMENTU BIHURTU ZENETIK, BAINA GESALTZAKOENTZAT URRE URTEAK HASI BAINO EZ DIRA EGIN. ZUZENDARI BERRIA IZENDATU ETA 20 URTETAKO KUDEAKETA PLANA MARTXAN JARTZEN HASI DIRELA, ARABAKO HERRIAK GATZAREN EKOIZPENARI ETA GATZ HARANAREN ERABERRITZEARI BERREKIN DIO.





t. maider lacalle

a. beinke & mikel landa

Gatz Harana orain dela 1.200 urteko, gutxienez, historia duen gatzaga multzoa da. Gatza lantzeari erreferentzia egiten dioten idatzia 822. urtekoak dira, baina lehenetik ere baliteke zibilazio desberdinek gatz-lanetan aritu izana. "Ziur dakiguna gatza IX. mendetik lantzen aritu direla da. Lehenagoko biztanleek ere hori egiten zutela da

posibleena eta momentu honetan hori da aztertzen ari garena", adierazi du Gatz Haraneko gida turistikoa den Aitziber Perez de Carcamok. Dokumentazio falta "handia" dago eta ikerketen okertzerako, zegoenaren gainean eraiki ere egin da. Azken honek arrasto asko ezabatu ditu eta ikerketak moteldu. Gesaltza-Añana herriak historikoki gatzarekin izan duen erlazioa ikasiz sortutako galdera ikurrei erantzuna eman nahi zaie,

egun aurrera eramaten ari diren ikerketen bidez.

Gatz Harana 12 hektareako harana da eta honen ekoizpen momentu inportanteenean 5.500 gatzaga egon ziren funtzionamenduan. Historian zehar garrantzi ezberdina izan du gatzaren ekoizpenak, baina azkenengo urteetan industrializazioa dela-eta gatzak behin zuen garrantzia galdu egin du;



gatzaren erabileretako bat janarien iraupen luzeagoa bermatzea zen, egun bakailaoarekin egin ohi bezala. Etxetresna elektriko denda guztietan eta Interneten eros ditzakegun hozkailuek hartu dute zeregin horretan errelebua. Hori dela eta, gatz haranek, Gesaltza-Añanek eta bestek, bertan behera utzi zuten gatz-ekoizpena eta kasu hone-tan, "hondamendi" itxurara iritsi arte suertatu zen utzikeria.

"Gatzaren fenomenoak [gatza lur azpian nola eratzen den] jendeari atentzio gehien ematen diona da", esan du Perez de Carcamok, "itsasotik hain urrun egonda bitxia suerta daiteke hemengoa ur gazia izatea". Azalpena prozesua baino zertxobait errazagoa da. Orain dela 200 milioi urte baino gehiago, garai triasikoan hain zuzen ere, sortutako fenomeno geologikoa da Gatz Haranarena eta bitxikeria moduan, Altamirako kobazuloaren garaikoa da. Kontinente bakarra zegoen orduan eta Gesaltzako herria ozeanoek eta itsasoek osatzen zuten. Lurraren mugimenduak eta aldaketa klimatikoak zirela medio, itsaso horiek lehortu ziren eta lehortzerakoan gatzaz eta beste material batzuez osatutako deposito handi bat sortu zen. Kontinenteak sortzen hasi zirenean, diapiroari -harri handi baten modukoa den depositoa- pitzadurak sortu zitzaizkion, apurtu zen eta gatzaz, buztin eta ofiten gainean material pisutsuagoak hasi ziren ezartzen. Material pisutsuek presioa eragin zuten diapiroaren gainean eta modu horretan dentsitate gutxiago zuten materialek, gatzak esaterako, diapiroaren pitzadurak aprobetxatuz filtratu egin ziren. Gesaltzatik hiru kilometrora dagoen lakuko ura geza da, baina ur hori lurpetik sartzen denez, bere bidean ur gaziarekin topo egiten du, gatzak disolbatuz. Hau dela eta, ur gazia izaten da iturburu naturaletatik ateratzen dena.

"Garai batean gatzak diruaren balioa zuen; izan ere, gatzak elikagaiak kontserbatzeko eta egungo farmazia produktuak egiteko erabiltzen zen. Horregatik zen hain garrantzitsua", adierazi du Perez de Carcamok. Gesaltzako gidak azaldu duenez, hortik dator gatzelerazko soldata hitza (*salario*); gatza zen diruaren truke erabiltzen zena. "Gaur egun petrolioak *urre beltza* bezala ezagutzen den bezala, garai batean gatza *urre txuria* bezala ezagutzen zen". Gesaltza-Añana eta gatzagak zituzten herri asko oso aberatsak izan ziren urteetan zehar. Badaude hainbat dokumentu errealtate hau egiaztatzen dutenak, baina hauek ere orain ari dira aztertzen. Herriaren aberas-

tasuna frogatzen duen beste zeozer zera da, Gesaltza-Añana Araba mailako lehen udalerria izan zela forua eskuratzen; 1140. urtean Alfonso VII.ak herriari forua eman eta hiribildu izendatu zuen.

Industrializazioak, esan bezala, aldaketak ekarri zituen gatzak merkatuan zuten garrantzian eta hau dela eta, baita honen ekoizpe-nean ere. Honetaz gain, gatza ekoizteko beste modu asko dagoen jakin-mina ere zabaldu zuen: era errazagoa, merkeagoa eta kantitate handiagoetan. Honek gatzaren balioaren devaluazioa sortu zuen.

Perez de Carcamok jakitera eman diguenez, "utzikeria prozesua Gesaltzan poliki gertatu da. Gatz Harana erabiltzen egon ez denez asko hondatu da eta bertan behera geratu egin zen jada lana 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran". Laurogeita hamargarren hamarkadaren hasieran 300 gatzaga besterik ez ziren lantzen. "Hau monumentu historikoa izendatu zenean hasi ziren instituzioak Gatzagari erreparatzen eta herriko jendearen boronda-teagatik ekin egin zaio berreskuratze planari".

Egun oso gatz gutxi ekoizten da eta produkzio guneak handitzea eta datorren urte-tik aurrera berriz ere gatzaren merkaturatze-ari ekitea da Gesaltzaren asmoa. Gatzaga bakoitzetik (gatzaga bakoitzak 15-20 metro karratu ditu) bi egunetik behin 35-40 kilo gatz irtetzen da. Uda on batean eta gatzaga on batetik ia tona bat gatz ateratzen da. Lehengo garai batean 5.000 gatzaga zeuden funtzionamenduan eta guztira 4.000 tona irten zitezkeen uda bakar batean. Gatzaga guztiek ez dute kopuru bera ematen, ordea; eguzki orduen arabera aldatu egiten da, ez baita berdina leku batean edo beste batean kokatuta egotea.

Gatzagak ur gaziarekin betetzen dira, gutxi gorabehera bi zentimetroko ur geruza botatzen zaie eta eguzkia eta haizeari esker, uraren lurrunketa naturala gertatzen da. "Lurrunketa hasi eta hau bere kabuz gauza-



“garai batean gatzak diruaren balioa zuen; izan ere, gatzak elikagaiak kontserbatzeko eta egungo farmazia produktuak egiteko erabiltzen zen. horregatik zen hain garrantzitsua”, adierazi du perez de carcamok. gesaltzako gidak azaldu duenez, hortik dator gaztelerazko soldata hitza (salario); gatzak zen diruaren truke erabiltzen zena. “gaur egun petrolioa urre beltza bezala ezagutzen den bezala, garai batean gatzak urre txuria bezala ezagutzen zen

tuko balitz, guk ezer egin gabe, gatzak gatzagan itsatsita geratuko litzateke”, dio Perez de Carcamok. Lanaren bigarren pausoa nahastea da. Hau egiteko *rodillo* izeneko egurrezko arrastelu baten modukoa erabiltzen da. Nahasteak mugimenduak eragiten ditu gatzagetan; modu horretan gatzak solte geratzen da eta ez itsasteko ureztatu beharra ere badago. “Goizean bete eta eguerdi partean nahastu egiten dugu eta hurrengo goizean berriz ere nahastu egiten dugu. Bigarren eguneko arratsaldean jasotzen da”. Jasotzea ere arrastelu batekin egiten da eta gatzak bakoitzaren erdian biltzen da gatzak. Gero gatz hori saskietara botatzen da eta hauetatik terrazetara bidali egiten zen garai batean, biltegi profesionaletara alegia. Hau uda osoa lehortzen egoten zen terrazetan eta urrian hasten zen gatzak herriko biltegi-tara eramaten. Bertan estatu osorako merkaturatzea hasten zen.

Gatz-lanen azken urteotan familia bakoitzak 80-120 gatzak inguru izaten zituen eta familiako kide guztiek egiten zuten lan, bai emakumezkoek, bai gizonezkoek eta baita umeek ere. “Beste herri askotan familiek lur soroak zituzten bezala, hemen familia gehienek edo guztiek gatzak zeuzkaten haietan lan egiteko”, laburbildu du Perez de Carcamok.

Nahiz eta monumentu historiko izenda-

tzeak (1987an) interes bat piztea ekarri zuen, urteak daramatza “inori hemen zegola axola egin gabe” eta utzikieriak egun hartzen ari diren eraberritze neurriak ezartzera eraman ditu Gesaltzakoak. “Hau gatz fabrika bat zen, herriko jendearen historiaren zati inportante bat eta denborak jausten ikusi du”. Orain, monumentu historiko izendatzeak ekarritako instituzioei nolabaiteko ardura bat eskatzeko aitzakia errealitate bihurtu da. Irailean Mikel Landa proiektuaren zuzendari aukeratu zuten.

Landa Gatz Haranean aritutako arkitektoa da. Orain arte Gatz Harana eraberritzeko plana instituzioetatik kudeatu egiten zen eta aurrekontu finko bat zegoen; “hau bukatzen zenean lanak gelditzen ziren”. Gatz Harana Fundazioa sortu berri da eta bertan parte hartuko dute Arabako Foru Aldundiak, Añanako Udalak, Gatzagak Elkarte Anonimoak eta Vital Kutxak. Fundazio honek, Gatz Haraneko ustez, lanak azkartuko ditu eta hauen geldiketa ekidingo du. “Mikel Landak esperientzia eta interesa erakutsi ditu eta bera hautatu dute pertsona egoki bezala hau guztiaz arduratzeko”.

Eraberritzearekin, batetik hondatzen ari zen monumentu historiko bat berreskuratu nahi da, hondamendiak aurrera egin ez dezan lortzea. Bestetik, gunea berreskuratu



nahi da historian barrena erabili diren materialak erabiliz. "Jendeak gatzagak XVI, XVIII eta XX. mendeetan nolakoak ziren ikusteko aukera izango du". Bisita gidatuek aurrera egingo dute eta jendeak berreskurapen lanak nola egiten diren ikusteko parada ere izango du. Azkenik, gatzaren garrantziaz eta herriaren historiaz jabetzeko beta ere izango dute bertara gerturatzen direnek. Honetaz gain, ekimen kulturalak bultzatuko dituen gunea izango da Gatz Harana, antzerkia, musika etab. "Paisaia izugarria da eta akustika ere. Baina tira, hogei urteko plana denez ideia asko dago eta pixkanaka egingo dugun zer-bait izango da", egin du hasperen Perez de Carcamok.

Uda batean milaka bisitari inguratzen dira Gatz Haranera eta hauek leku desberdinetatik datoz, Arabatik, Euskal Herritik, Bartzelonatik eta Madrildik, estatutik eta Erresuma Batua eta Frantziatik ere. "Harritu egiten zara Poloniatik bi, Mexikotik hiru eta Estatu Batuetatik bost datozenean". Inguruko monumentu historikoetan izaten diren antzeko bisitari kopurua dutela ziurtatu digu Perez de Carcamok. Bisitari gehien beharrak asetzeko, lau hizkuntzatan eskaintzen dute gida: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, lehen biak gehien erabiltzen direnak izanik. Horretaz gain, audio gida egiteko aukera ere badago, gidek esaten dutena hizkuntza desberdinetan



entzun daitekeelarik. Helduek 4 euro ordaintzen dituzte, jubilatuek eta ikasleek 2, eta umeek ez dute ezer ordaintzen.

Oraingoa une berria da 200 milioi urte baino gehiago dituen Gatz Haranerako. Industrializazioak utzikeria ekarri bazuen ere, garai modernoek bere berpiztea ikusi

nahian, 20 urtetako eraberritze plana bermatu diote urte txuriko bailarari. Gatzak ez du garai batean izan zuen balioa edota garrantzia, baina Gesaltza-Añanaren historia kontatzeko tresnak zaharberritzea urrezko proposamena da benetan, eta zer dira 20 urte, milioi urtetako historian? Gatz eskukada bat besterik ez ●

29 URTE, EKONOMILARIA. 2009/2010 IKASTURTEKO LEHEN PROTAGONISTA DUGU UNAI ETA KURTZOAREN ERRONKEN INGURUAN GALDETZEAN, ERRONKAK ABENDUAN PENTSATZEN DIRELA DIOSKU, IKASLE GARAIA AHAZTUA DU DAGO-ENEO! CORAZONISTAS IKASTETXEAN IBILIA, ONDOREN SARRIKON ENPRESEN ANTOLAKETA ETA ZUZENDARITZA IKASKETAK BURUTU ZITUEN ETA GAUR EGUN KUTXA BATEAN DIHARDU LANEAN. EUSKARA BETIDANIK IZAN DU GUSTUKO ETA HORREGATIK GAZTETAN ABIARAZI ZUEN BERE EUSKALDUNTZE PROZESUA.

“Ez ditut ulertzen gizabanakoen eskubideak zalantzan jarri edo ukatzen dituzten pertsonak”

UNAI ATXAERANDIO
ORTIZ DE MURUA:

t. ane pedruzo **a.** edorta sanz

Mendia, futbola eta lagunekin irtetea ere atsegin du eta urtetan eskauta izan ondoren aurten agur esan beharko dio zapi esanguratsuari. Honez gain, azkenaldian etxe bat erostera ausartu da eta hura atontzeko lanetan dihardu buru-belarri. Altxariak gora eta behe-
ra tartetxo bat eskaini dio Geuri elkar ezagutzeko...

Duzun biziorik handiena? Hainbeste dira daukadan bizioak... Erretzea esango nuke, bere garaian utzi nuen eta berriz bueltatu naiz.

Bertuterik? Normalean umore onez eta oso pozik bizi naiz, irribarra beti ahoan. Jarrera honek egunerokotasunean laguntzen dit.

Akatsik? Pazientzia gutxi daukat, izan ere, zerbait nahi dudanean momentuan lortu behar dut.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Nagoen bezala jarraitzea. Orain pozik nago eta ahal bezainbeste luzatu nahiko nuke egoera hau, hori bai, bizitzako une bakoitza aprobetxatuz.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Bidegabekeriak. Ez ditut ulertzen gizabanakoen eskubideak zalantzan jarri edo ukatzen dituzten pertsonak. Guztiok ikuspuntu zabalagoa bagenu mundua oso bestelakoa litzate-

ke, errazago elkar ezagutuko genuke be-
hinzat.

GEU aldizkaria eta elkartearen berririk?

Noiztik? Txikitatik. Nire izeba euskara ikasten hasi zenean aldizkaria beti zegoen amaren etxean eta bertara bazkaltzera joatera-koan irakurtzen nuen nahiz eta ezer ez ulertu. Ondoren euskaltegia irakurtzen hasi nintzen eta gaur egun harpideduna naiz. GEU gehiago ezagutu beharko litzateke, gasteiztar euskaldunon gauza bat delako, geurea.

Egunkari bat? Normalean tabernetan El Correo irakurtzen dut baina egunkaria nik erosten dudanean Berria aukeratzen dut euskararekin harremana mantentzeko.

Telebista saio bat? El conquistador del fin del mundo. Izugarri gustatzen zait, pisuan astelehenero afari ederra prestatu eta pisukide guztiek elkarrekin ikusten genuen, gertatutakoak komentatuz.

Beldurrik? Ez dut beldurrik, errespetua baikik. Esaterako, ez naiz itsasoaren beldur baina errespetua diot.

Oporrak non eta zertarako? Lekuak ez du axola, baizik eta zurekin doan jendea eta esperientziak berak. Adibidez, iazko neguan Finlandiara joan nintzen, baliteke tokirik aproposena ez izatea, kristoren hotza egiten baitzuen baina sekulako esperientzia izan zen niretzat.

Nora ez zinateke joango? EEBBetara agian, jakin badakidan arren etorkizun batean

joaten bukatuko nukeela. Izan ere, toki guztiak ezagutu behar direla uste dut. Nahiz eta gustukoa ez duzun toki batera joan, bertan egonda dena hobeto ulertu eta asko ikasiko duzu... Horretarako baina, jarrera irekia izatea ezinbestekoa da eta alde zurretiko epaiketak baztertu behar dira.

Eguna ala gaua? Biak. Bakoitzak bere xarma dauka.

Gasteizko gaua non? Kutxi kalean.

Araba eta Gasteizko txoko bat aukeratu beharko bazenu, zein litzateke? Gasteizen Andre Maria Zuriaren plaza, leku adierazgarria baita. Araban Landako urtegia, baita Goian ere.

Liburu bat? Euskaraz, Bernardo Atxagaren 'Gizon bakartia'. Une kritiko batean irakurri nuen eta guztiz hunkitu ninduen. Erdarazko liburu artean Julio Vernerren 'Dos años de vacaciones' aukeratu nuke. Aldi gehien irakurri dudana liburua da, izugarri gustatzen zait, ume naufragorik batzuek osatutako gizar-teaz mintzo da, abenturazko istorio bat da.

Film bat? Zergatik? 'El club de los poetas muertos'. Gauza anitz irakasten dizkizun filma da.

Edari bat? Pika edo garagardoa.

Janari bat? Amamaren piper berdeak, izugarri maite dut amama!

Kolore bat? Berdea. Orain etxea margotzen nabil eta dena da berdea, hori bai, tonu ezberdinekin! Kar-kar!

**Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?**

Egunerokotasunean zaila da... Euskal giroa zuk zeuk sortu behar duzu... Askok euskara jakin badakite baina ez dira ausartzen hitz egitera, halere, zu hasten bazara euskaraz jarraituko dizute. Polita litzateke euskarak gazteleraren antzerako tratamendua jasotzea zure buruari "honek euskaraz jakingo ote du?" gehiago galdetu behar ez izateko.

Amets bat? Mundu osoak edozein herritako eskubideak errespetatzea.

Amesgaizto bat? Aldatzea eta pertsona gaiztoa izatera iristea.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna?

Gaur eguna. Gauzak dagokien unean bizi behar dira, iraganetik ikasten dugu eta etorkizuna etortzeaz dago.

Zer eskatzen du herriak? Jende askok ez du ezer eskatzen eta hori da arazoa. Gaur egungo gizartean norbanakoa nagusitzen da eta herria zoritxarrez gero eta indibidualistagoa da ●

Musika talde bat? Hertzainak.

Kirol bat? Futbola.

Zer da Gasteizek duen onena? Oso ondo ezagutzen dudala eta atsegina dela. Gainera ez da egia euskaldunok itxiak garenik, nire

ustez Gasteiz hiri irekia da oso.

Txarrena? Guztiek ezagutzen zaituztela eta hiri dotoregia dela. Sarritan benetan garrantzitsuena denari heldu ezean txikikeriez kezkatzen gara.

EUSKALDUNTASUNEAN LAGUN

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS



Andre Maria Plaza t. 945 23 24 48

Olagibel, 33 t. 945 25 40 84

GASTEIZ


geugaiall

AUZOLANA PILOTALEKUA

Etenik gabeko TXAPA hotsa eta AHOTSA

**ALDE ZAHARREKO AUZOKIDEEN ARTEKO
ELKARLANAK TANTO BERRIA LORTU DU TXAPA
AHOTSA ASANBLADAREN ESKUTIK. DENBORA LUZEZ
AHAZTURIKO SAN JOSE FRONTOIA KONPONDU ETA
ABIAN JARRI ZUTENETIK EGUTEGI OSO BAT ETA
APURTXXO BAT GEHIAGO IGARO DA. 2008KO
UZTAILAREN 5EAN JOLASTOKIA "AUZOLANA
PILOTALEKUA" IZENPEAN BERPIZTU ZUTEN, GAUR
EGUN OSO BIZIRIK DIRAUELARIK.**

AUZOLANA
PILOTALEKUA
2008



t. ane pedruzo

a. edorta sanz & txapa ahotsa

Horren testigu dira Rafael Ruiz de Zarate, Arrate Albaina, Itziar Lekuona eta Luis Casado *Txapa ahotsa*-ko kideak. Laurak GEU-rekin solasean egon dira txapa hotsa lagun, izan ere, hitz egin bitartean bi neska frontenisean ari ziren. Pilotaren joan-etorriak saihestuz, alde zaharreko partaidearen iragana, gaur eguna eta etorkizunari heldu diote...

Pilotalekuaren aurkikuntza

Rafak ezarri ditu testuinguruaren xehetasunak. 90. hamarkadan, *Qasteiz txiki* auzo elkarteko lehendakaria zenean -gaur egun Barrenkale elkarteko kidea da-, "gazteen arte-

an kirola sustatzeko beharra sumatu eta Landatxo kirol eta kultur elkarte abiarazi genuen", hasi da. Horren aurretik gainera, eskola arteko pilota txapelketa antolatzen zuten, zeina Foru plazako frontoian gauzatzzen zen urtero-urtero, egun ere maiatz alde-
ra egiten delarik. Gasteizko klima zer-nolakoa den kontutan izanik baina, ez ziren gutxi lehiaketa aurrera eramatea galarazten zuten egun euritsuak. Irtenbide bat bilatu beharra zegoen eta zorionez auzoan frontoi estali bat zegoela jakin zuten, San Jose. Frontoia Agirre Fundazioaren ondasuna zen eta da, ondoko Eskoriatza-Eskibel jauregi errenazentistaren jabe ere baden fundazioarena alegia. "Orduko alkatea zen Jose Angel Cuerdari gure beharrak eta nahiak aurkeztu genizkion eta bera laguntzeko prest agertu zen", gogo-

ratzen du Rafak. "Udalak *Qasteiz Txiki*-ri egokitu zion frontoiaren eta Landatxo poliki-roldegia kudeaketa, egintza horretarako dirulaguntza emanez", azaldu du, horren frogaren paperak erakutsiz. Berauetan elkarte eta Udalaren arteko lehen akordioa 1994. urtekoa dela ikus daiteke.

Auzokide anitz jolastera hurbiltzen hasi ziren orduan, horien artean bere garaian nes-
kato bat zen Arrate Albaina, dagoeneko hazi-
a. "Zure etxetik pasatzen ginen frontoiko giltzak hartzeraz", gogorarazi dio Arratek Rafari.

Gainbeherara zigortua

"Alfonso Alonso alkatetzara iristean dena aldatu zen", jarraitu du Rafak. "Ederra egin zuen Alonso onak!", kexatzen da. Izan ere, dirulaguntza deuseztatu eta Landatxo gizarte etxeari esleitu zion frontoiaren ardura. Ordutik, frontoia itzaliz joan zen pixkanaka, "hil egin zen". Arratek zerrendatzen duenez, erabilera ordutegia murriztu zen oso, asteburuetan ez zegoen joaterik gizarte etxea itxita zegoelako, hamaika paper bete behar ziren erabiltzailea izan ahal izateko...


Egoerak okerrera egin zuen txingor ekaitz batek teilatua eta zorua kaltetu zituenean, Udalak frontoiaren ateak itxi baitzituen instalazioak segurtasun neurriak betetzen ez zituela argudiatuz.

Eraikina alde batera utzi eta ia bi urtez egon zen itxirik.

Beharrak adimena zorroztu...

Urtebete luze igaro da alde zaharreko zenbait auzokide frontoia lehengoratzearan alde *Txapa Ahotsa* izenpean antolatzen hasi zirenetik. Udalaren erantzunik ezean, etxez etxe zabaldu zuten aldarrikapena eta Agirre Fundazioaren administratzailea den Rafael Sevilla apaizarekin harremanetan hasi ziren. Honek berriztapen proiektua onetsi bezain pronto errebindikaziotik ekintzara egin zuten salto.

Elkarlanean, norbanakoez gain, hamaika kolektibotako lagunek ere -Hala Bedi Irratia, Zapateneo kulturgunea, Ramon Bajo eskola-



ko guraso eta ikasle taldea, Gao Lacho Drom ijito elkarte, Gaztetxea eta Egin Ayllu, beste-ak beste- bat egin zuten.

Hilabete bat nahikoa izan zuten guztien artean pilotalekuari itxura berria eman eta, berriz ere, martxan jartzeko. Teilatuko zuloa estali, putzuak lehortu, zorua berdindu, leundu eta margotu, frontisa konpondu... bazegoen zer egin. "Gazteek frontoia konpondu nahi zuten nola edo hala", dio Rafak. Hogeita hamar pertsona inguru aritu ziren buru-belarri lanean. "Kontu teknikoetarako ezagunen ezagunak etortzen ziren laguntzera", argitu du Arratek.

Azkeneko ukituak emanda iazko uztailearen Sean inauguratu zen "Auzolana pilotalekua". Lehen partida auzokideen artean jokatu zen. Pilota hormaren kontra kolpatzerakoan sortzen den hots bereziak girotu zuen une hura. Ordutik hotsa egunero entzuten da.

Gogoetarako parada... Txapa Ahotsa - 22

Lehen urtemuga dagoeneko ospaturik, balantzea egitea eskatu diegu gure protago-

nistei. Itziarrek zenbakiak egin eta atea berriz zabaldu zituenetik frontoitik 150 pertsonatik gora igaro direla diosku. "Pilotalekuaren abiaraztea guztiz arrakastatsua izan da", dio. Gainera, jolasteaz gain, jendeak herri bazkariak, dantza tailerrak... eta bestelako ekintzak ere burutu izan ditu frontoian, bere erabilera ez baita pilota jokoetara soilik mugatzen.

Rafa pozik agertzen da kudeaketa modu berriarekin. "Biltzar bidezko funtzionamendua gogoko dut, auzo osoaren konpromisoa bideratzen baitu, auzoak berak lan egin dezala bultzatuz".

Urte bat bete den honetan, pilotalekuaren oinarri ideologikoak berretsi dituzte. "Instituzioetatik at mantendu nahi den proiektua da. Era kolektiboan konpondu, zaindu eta kudeatzen dugu, autogestioaren bitartez. Horrez gain, proiektu honen bitartez auzoa egin nahi dugu, komunitate sentimendua zabaldu, auzokideen elkar ezagutzea bultzatu". Tinko azaltzen da Arrate euren filosofiaz aritzean. Ideia hau da, hain zuzen ere, Rafa, Arrate, Luis eta Itziar batu dituen. Frontoian ezagutu zuten elkar eta

frontoiaren alde dihardute batera lanean. "Oraindik ere ez dakigu nola jolasten duen bakoitzak", dio txantxetan Itziarrek. "Adin bat dugunok txalotzera etortzen gara", gaineratzen du Rafak irriabartsu.

Nola lagundu Txapa Ahotsa sendotzen?

Asanbladaren jarduteko eraren inguruan ere mintzatu dira. Horrela, hilean behin frontoiaren beharrak zehazteko elkartzen direla azaldu dute. Aurten esaterako, aldageletan ur beroa izateko galdara baten premia ikusita, jartzea erabaki dute. Oraindik baina asko dago egiteko. "Fokuak konpondu eta neguan ager litezkeen itoginei aurre egiteko lankidetzaz ezinbestekoa dugu", aldarrikatu du Rafak. Itziarrek asanblada mundu osoari irekia dagoela nabarmendu duelarik. "Ideia honen zabalkundean tematu nahi dugu".

Kudeaketaren nondik norakoak

Luis bere aldetik, funtzionamenduaren inguruan mintzatu da. Dioenez, "hiru hilero



Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

bilera bat egiten da non erabilerak ordutegia zehazten den". "Pilota eskolek eta eskolaz kanpoko ekintzek dute lehentasuna orduak aukeratzeko", nabartu du. "Gainontzeko orduak ohiko erabiltzaileen artean banatzen dira eta bi pertsonak ordu berdina nahi izatekotan adostasun batera heltzen saiatzen dira, ezinezkoa suertatzekotan zozketa egiten delarik". Gainera, norbaitek egun solte batean frontoira joan nahi izatekotan aukera ere badu, "telefonoz deitu eta dauden ordu librean artean gehien komeni zaiona aukeratzeko bezain erraza da". Beste aukera bat Hala Bedi tabernara hurbiltzea eta izena ematea da, izan ere, bertan daude frontoiko giltzak eta ordutegia. "Maiztasunez etortzen direnek, ordainean frontoiaren garbiketan, baita proposatzen diren ekintzetan ere, laguntzeko konpromisoa hartzen dute", argitu du Arratek. "Frontoia gutxi gorabehera 10:00etatik 23:00ak bitartean erabili daiteke", erantsi du Luisek.

“instituzioetatik at mantendu nahi den proiektua da. era kolektiboan konpondu, zaindu eta kudeatzen dugu, autogestioaren bitartez. horrez gain, proiektu honen bitartez auzoa egin nahi dugu, komunitate sentimendua zabaltzeko, auzokideen elkar ezagutzea bultzatu

Azken bilera irailean gauzatu zen. Hurrengo urtarilean burutuko dute. "Kartel eta irratien bitartez emango da data zehatzaren berri", dio Luisek, norbait interesaturik egotekotan jakinaren gainean egon dadin.

Urtebetea soinean. Eta orain zer?

Berriki jakin denez, Eskoriatza-Eskibel jauregiak hotel bat barne hartzea da udal



luis casado, arrate albaina eta rafael ruiz de zarate, txapa hotsa-ko kideak


gobernuaren helburua eta horretarako eraikin historikoa erosteko igarobidetan dabil. Albiste honek zuzenki eragiten dio "Auzolana pilotalekua"ren etorkizunari baina ez ditu ez Rafa, ez Arrate, ez Luis ezta Itziar ere izutzen. Laurek frontoia defendatzen eta zaintzen jarraituko dutela argi dute. "Frontoiaren beharra soberan frogaturik dago", dio Arratek. "Eskaria espazio honen legitimazioaren isla argia da", gehitu du Itziarrek. Honen harira, Rafak alde zahararen arazo sozialak salatu ditu. "Auzoak egitura monumental anitz dauzka, oso ederra da... baina zerbitzuei dagokienez guztiz bazterturik dago, auzokideen beharrei erantzuna

ematen dieten espazioen gabezia pairatzen dugu". Adibide moduan, anbulatorioa edo Ramon Bajo eskolaren egoera kaxkarra agertu ditu Rafak. Arratek Rafaren esanak borobildu ditu, "gure auzoa erakustoki hutsa da, turistei zuzendua, bertako biztanleek nahi dutena ezer gutxi axola zaie agintariei". "Udalaren arduragabekeria lotsagarria da", ondorioztatu du Rafak.

Etorkizuneko jazoerak direnak direla, "Auzolana pilotalekua" dagoeneko urtea bete du eta bere frontisa erronka berriei helteko prest dago, ausartzen?

Zorionak! ●

Kontaktua: txapaahotsa@gmail.com / 605707539




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa





<http://imvglaciudadpintada.blogspot.com>



hormi



BADATOR GAZTEZULO 1

GEZURRA DIRUDI. BEDERATZI URTE IGARO DIRA ORDUKO GAZTETXULO ARGITARATU ZENETIK. ETA 100 ZENBAKI KALERATU DITUGU HARREZKERO. ZENBAT PROTAGONISTA, ZENBAT IRUDI... ORAIN ARTEKO EDUKI ONENAK BILTZEA BURURATU ZAIGU ZUEN LEIALTASUNA OMENTZEKO. ATERAKO AL DIEGU HAUTSA?

FERMIN MUGURUZA, 9 URTE GEROAGO

LEHENDABIZIKO ALE HARTAN AZALEAN IZAN GENUEN ETA EHUNGARRENEAN ERE GUREKIN DA. 21 URTE ZITUELA IGO ZEN OHOLTZA GAINERA ETA, HONEZKERO, 25 DISKO INGURU KALERATU DITU. ORAINGOAN, BAINA, ZINEMAGINTZAZ ARITUKO GARA FERMIN MUGURUZAREKIN. CHECKPOINT ROCK DU IZENA IRUNDARRAK ZUZENDURIKO LEHENENGO FILMAK, PALESTINAKO MUSIKARI BURUZKO DOKUMENTALA DA.



100

MAMBA BEAT

gaztezulo

URRIAK 17
21:00etan
DONOSTIAKO
TABAKALERAN
DOAN

BERTSOUND SYSTEM
BERTSOLARIAK: XABIER SILVEIRA
ETA IÑAKI VIÑASPRE
RAP ABESLARIAK: MAISHA MC,
ENDIKA LAHAINE ETA LAGUNAK
BREAK DANTZARIAK
ARITZ SOUND SYSTEM

GAZTEZULO 100 FESTA

**RAP VS
BERTSO
MAMBA
BEAT** KON
TZER
TUAN

BASERLEAK

EUSKARAREN

hiria

ETORRI GAZTEZULO 100 FESTARA!

Ehungarrenera iritsi garela eta, pozez gainezka gaude. Orain arteko lanak eta esfortzuak merezi izan duela sentitzen dugu eta. Badugu ospatzeko aitzakiarik eta zuek guztiak ere horren partaide egin nahi zaituztegu, geutarrak gaztezulotarrak ere bazarete. Horregatik, urriaren 17an Donostiako Tabakalera eraikinean antolatuko dugun GAZTEZULO 100 festara etortzeko gonbitea luzatzen dizuegu. 21:00etan hasiko da giroa, bertsolari eta rap abeslariak egingo duten aurrez aurreko norgehiagokarekin, eta break dantzarien ikuskizunarekin. 22:30ak aldera izango da Mamba Beat taldekoen txanda, ez da jaio Bilboko enritmo dantzagarriekin aldakak mugituko ez dituenik! House-funk, acid-jazz eta elektro doinuekin egingo dugu aurrera, eta Aritz Sound Systemek jarritako musikak borobilduko du gaua. Plan bikaina da, animatu!

S.O.S. ARRIAGA PARKEA PLATAFORMA

PARKEAREN OIHUA, AUZOAREN OIHARTZUNA

AUTOBUS ETA TREN GELTOKI BERRIAREN ERAIKITZE PROIEKTUAK GASTEIZKO BERDEGUNERIK GARRANTZITSUENA MEHATXATU ZUELA BI URTE IGARO DIRA. BIDEAN EGITASMOAK ALDAKETA UGARI JASAN ETA KRISIARI AURRE EGIN BEHAR IZAN BADIO ERE UDAL GOBERNUAREN ASMOAK EZ DIRA ALDATU. ARRIAGA INGURUKO AUZOKIDEEK PARKEAREN DEIADARRARI EUTSI ETA BERDEGUNEAREN OSOTASUNA ETA OSASUNA BERMATZEAREN ALDEKO JARRERA IRMO AGERTU DUTE.

t. naroa cuesta **a.** edorta sanz

Atzera begira

Hiriaren erdigunean, Herrandarren kalean, dago kokatuta Gasteizko autobus geltokia. 1993. urtean eraiki zen behin-behinekoa izateko aurreikuspenarekin, baina ordutik hiriburuko autobus geltoki bakarra da. Hobe-kuntza anitz egin badira ere ez dago egoerarik onenean; segurtasun eta garbitasun arazok larritzen dituzte langile eta erabiltzaileak.

Udal gobernua bere planak iragarri zituela bi urte igaro dira dagoeneko. Autobus geltoki zaharra ordezkatzeko planak, alegia. Geltoki berri honek intermodala behar zuen, hots, autobus eta tren zerbitzuak, biak, bereganatu behar zituen. Lakua auzoa da udal gobernuaren arabera geltoki berri eta moderno honentzat kokalekurik aproposena. Zehazkiago esanez, Arriaga parkearen zati bat jango luke azpiegitura honek. Abiadura Handiko Trena aitzakia harturik, aukeratu du Lazcozen gobernuak Arriaga parkea, tren mota horrek kilometro bat behar baitu gelditzeke.

Arriaga parkea hiri barneko berdegunerik handiena izateaz gain, ehun eta berrogeita

hamar espezie botaniko baino gehiago ditu. 1979ko abuztuan sortu zen parke handi hura "hutsik dagoen eremutat" hartu du Gasteizko alkateak, Ipar Arriagako auzokideen aburuz. Parkearen erdian San Juan Arriaga basiliza kokatua dago, Arriagako Kofradiaren antzinako egoitza. Gasteizko mapari berdetasuna ematen dion gune honek kirolzale eta jolaszale ugari biltzen ditu egunero, eta gasteiztar askoren topagune bihurtu da.

Hasierako egitasmoa

Udalaren lehendabiziko egitasmoaren arabera parkearen 27.000 metro koadro beharko lituzke geltokiak, hau da, eremu berdearen % 15. Autobus geltokiak gutxienez 10.000 metro koadro hartuko lituzke, eta bigarren fase batean, etorkizunean, trenaren heltzearekin eragin eremua handituko litzateke. Lanen lehenengo fasean, autobus geltoki berriarekin batera, hamar solairuko hotela eta hamasei solairuko bulego-eraikina aurreikusten zen. Eraikin gehigarri hauek proiektuaren finantzabide lirateke.

Baina, zer-nolako eragina izango lukete horrelako eraikinek Arriaga parkean? Bostehun zuhaitz inguru bota edo lekuz aldatu beharko lirateke autobus geltokia eraikitzeke.



angel lamelas, sos arriaga parkea plataformako bozeramalea



Ondorengo fasean, lur azpiko tren geltokia-
ren lanekin batera, berdegunearen zati handi
bat kaltetuko litzateke. Datu ofizialak izatea-
ren garrantzia azpimarratzen du Lamelasek;
Udalak eta Foru Aldundiak eskainitako
datuak, alegia.

SOS Arriaga Parkea-ren ekimenak


Behin jomuga zehaztuta, abian jartzeko
momentua heldu zen. Auzokide eta gasteiz-
tar gehienek babesa zutela egiaztatzeko
sinadura bilketa kanpaina jarri zuten mar-
txan. Oraingo 9.200 sinadura bildu ditu pla-
taformak. Euren eskakizunei bermea emateaz
gain, sinadurek proiektuari eginiko alegazio
prozesuan garrantzia izan dezakete.

Bestetik, parkearen biziraupena kolokan jar
dezakeen proiektu honek komunikabideetan
oihartzuna izatea lortu du SOS Arriaga
Parkeak. Alde batetik, prentsaurreko anitze-
tan egitasmo ezberdinen inguruko jarrera
azaldu dute, Udalak isilean gorde dituen
hainbat datu plazaratuz. Bestetik, Arriaga
parkea ezagutzeko eta aintzat hartzeko

Parkea mehatxatzen

Arriaga auzoko 27.000 biztanleek jakin-minez entzun zituz-
ten udal gobernuaren egitasmoak. "Auzo-elkarteko kideok
Udaleko bozeramaileekin elkartu ginela bi urte igaro dira
jada", gogoratzen du Angel Lamelasek, Ipar Arriagako auzo-
elkarteko presidenteak. "Parkea ez zela ukituko azpimarratu
ziguten, hitza eman zuten. Ostera, aurreproiektuak parkea
inbaditzea aurreikusten zuen". Behin informazioa zehazki
aztertu eta baloratu ondoren erasotzat jo zituzten Lazcozen
gobernuaren burutazioak. Auzokideek bat egin eta udal
gobernuak zituen planak bertan behera gera zitezen lanean
hasi ziren. Hori dela medio sortu zen SOS Arriaga Parkea
plataforma. Hainbat auzo-elkarte, talde ekologista eta bes-
telako talde sozialek osatua; guztira, 34 elkarte biltzen ditu
gaur egun.

Plataforma honek hasieratik argi azaldu zituen bere hel-
buruak. "Ez gara inoiz geltokiaren aurka agertu", nabar-
mentzen du plataformaren bozeramaile Angel Lamelasek.
"Are gehiago, Gasteizek geltoki hobearen beharra duela
jakin badakigu, baina ez da zergatik Arriaga parkean izan
behar". Hauexek dira kolektibo honen xederik nagusienak:
intermodalak parkearen lur-zatia ez erasotzea eta geltokia-
rekin zerikusirik ez duen eraikinik ez altxatzea (ez bulegorik,
ez hotelik).



Lotura politikotik at

Udal gobernuaren jarrera behin baino gehiagotan salatu du parkearen aldeko kolektiboak. Hainbat datu ezkutuan edo isilpean mantentzea leporatzen diote Lazcozen gobernu taldeari. Horrenbestez, informazio zehatz eta fidagarria biltzeko bestelako bideak bilatu ditu plataformak. Independentzia politikoa argiki azaldu badu ere, hasieratik izan ditu Eusko Alkartasuna eta Aralar alderdien laguntza eta babesa.

hamaika ekintza antolatu ditu. Asanbladak, kontzentrazioak, manifestaldiak, ibilaldiak... betiere, parkearen osotasun eta osasunaren alde.

Ekintzarik arrakastatsuena parkearen hogeita hamargarren urteurrena ospatzeko antolatutako jaia izan zen, milaka lagun bildu ziren parkea zoriontzeko asmoz. Era berean, parkeak dituen zuhaitzak eta landareak ezagutarazteko helburuz asteburuetan egindako bisita gidatuek harrera ezin hobea izan dute.

Izan ere, ikasturte berriari begira Padre Orbiso eta Umandiko ikasleei zuzenduriko bisitaldiak antolatzeari ekin baitiote.

Krisiak eraginda plan aldaketa

Lehen azaldu bezala geltoki intermodalaren finantzabide gisa bi eraikin aurreikusten zituen udal gobernuak. Egoera ekonomikoa gaiztotu ahala aurreproiektu horrek aldake-

tak jasan ditu. Hotela eta bulegoak eraikitzearen ideia bertan behera geratu da. Hala ere, geltokiaren proiektua martxan da, koka-pena berdintsua delarik.

Krisi ekonomikoa gainditu arte intermodalak tiraderan beharko du itxaron, baina bitartean Gasteizek ezin du Herrandarren kaleko autobus geltokiarekin soilik jarraitu, betiere Udalaren aburuz. Horiek horrela, EAJren aldeko botoarekin PSE-EEK behin-behineko autobus geltokia Arriagan eraikitzeko proposamena onartu du. Iraungitze-data izango lukeen geltoki horrek 25 milioi euroko inbertsioa leharke eta parkearen 5.000 metro koadro baino gehiago inbadituko lituzke. SOS Arriaga Parkea plataforma ez ezik, Udalean dauden gainerako talde politikoak ere proposamen honen aurka agertu dira.

Hirugarren aukera posiblea

Ulgaitza izan arren, behin-behineko autobus geltokiaren aldeko botoa eman zuen egun berean hirugarren aukera posiblea aurkeztu zuen EAJko udal taldeak. Ustekabean heldu aukera honek ez luke, jeltokideen arabera, eraginik izango Arriaga parkean. Autobusak eta trenak jasoko lituzke parke ondoan kokaturiko Juan de Garay kalean. Onartutako behin-behineko autobus geltokiak 2016 urtera arte emango luke zerbitzua, intermodal berria eraiki bitartean.

Hirugarren proposamen honek SOS Arriaga Parkea plataformaren eskakizunak beteko lituzke, betiere, onartutako behin-behineko autobus geltokiaren egitasmoa bertan behera geratuko balitz. "Behin-behineko eraikin batean ezin daitezke 25 milioi euro gastatu", adierazten du Lamelasek.

Plataformaren bozeramaleak argi dauka auzokideek ez dutela zertan alternatibarik eman, hala ere, hainbat proposamen bota dituzte. Hala nola, egungo Herrandarren kaleko geltokia hobetzea parketik kanpo eraikiko litzatekeen intermodala erabilgarri

izan arte edo ustezko behin betiko geltoki hori beste leku batean finkatzea, Foronda Etorbidearen amaieran, adibidez.

Ahopeko urratsak

Onartu proposamenak (Arriagan kokatuko behin-behineko autobus geltokia) isilpeko bidea hasi du dagoeneko. Ekainaren 5ean "Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorra"ren berrikuspen partziala onartu zuen Gasteizko udal-batzordeak. Errebisio honek Arriaga parkeko eta Euskaltzaindia plazako 35.000 metro koadroen desagertzea aurreikusten du. SOS Arriaga Parkearen esanetan, iruzurrezko errekalifikazioa da. Izan ere, "eremu berdetzat" hartuko litzakete jada eremu berdea dena, eta parkean galdutako partzela ez zen beste inon irabaziko. Horiek horrela, Ekologistak Martxan taldeak, Ipar Arriaga auzo elkarteak eta Lakua Arriaga auzo elkarteak berrikuspen honen aurkako alegazioak aurkeztu dituzte. Alegazio-epea luzatzeko eskaria egin dute eta jasotako sinadurak argudiotzat hartzea da egungo erronka.

Auzoaren iritzia haztatuz

SOS Arriaga Parkea plataformak auzokide gehienek babesa izan du hasieratik. Nolanahi ere, inkesta baten bidez proiektuaren ezagutza zenbaterainokoa den jakitea interesgarri suertatu zitzaion, eta zeregin horretan izan dira azken hilabeteotan. Ezbairik gabe, inkesten konklusioek desinformazioa nagusi dela azaltzen dute. Gehienak udal proiektuen aurka agertzen badira ere, ez dituzte proiektu desberdinen ondorioak zehazki ezagutzen. Dena dela, zentzuzkoa dirudi plazaratutako hiru proiektu horien inguruan zalantza anitz izateak. Udal egitasmoen argitasun falta nabaria da. Udako eguzki izpiek egoera argiagotu bainoago, aldrebestu dute. Kolokan beraz, Arriaga parkearen eta intermodalaren etorkizuna ●



plataformako kideak, parkean bertan



A GRIPEA, loa eragozteko bezain arriskutsua?

t./a. ane pedruzo

A GRIPEA, TXERRI GRIPE, GRIPE BERRI EDO AHINI IZENEZ ERE EZAGUNA, SOLASALDI ANITZETAKO PROTAGONISTA IZAN DUGU AZKENALDIAN, GEHIEGI AKASO. GOBERNUAK PANDEMIA EKIDITEKO NEURRIAK HARTZEN ARI DIRA, ESATERAKO, OSAKIDETZAK URTAROKO GRIPEAREN AURKAKO TXERTOJA JARTZEKO KANPAINA AURRERATU EGIN DU. A GRIPEAREN TXERTOAREKIN BAT EZ EGITEKO, IKASTETXEETAN INOIZ BAINO ADIAGO DAUDE AHALIK ETA UME GUTXIEN KUTSATU DAITEZEN, EZ DA KOMENI ESKUA EMANEZ EDO MUSUKATUZ ELKAR AGURTZEA...

Argi dago arduratsuak izatea komeni dela baina momentuz lasai egon gaitezke, adituen aburuz A gripea ez baita horren arriskutsua. Halere, askotan zaila da lasaitasuna mantentzea astero komunikabideek A gripeak eragindako hildakoen berri ematen baitigute, urtaroko gripearen biktimak ahaztuz.

Honek guztiak hausnarketarako bide ematen du, psikosiaren biktimak al gara? Auzia kalean dago...

1) A gripeak kezkatzen zaitu?


2) Mehatxu erreala ala mehatxu mediatiko, politiko edo ekonomikoa da?

3) Txertoa jartzea pentsatu al duzu?



MONTSE ARGEMI, 53 urte,
psikologoa

- 1) Egia esan ez nau asko kezkatzen, errealtatea puzten ari dela baiteritzot. Ez dut ukatzen bere garrantzia duenik, baina berez ez da kezkatzen nauen kontu bat.
- 2) Mehatxu erreala ematen du baina atzetik interes ekonomiko eta politikoak ere ezkututzen direla uste dut.
- 3) Ez, ez dut uste beharrezkoa dudarik, txertoak ez dit inolako segurtasunik ematen, ez dut bere eraginkortasunean sinesten.



RICARDO CUESTA, 32 urte,
langilea

- 1) Ez, nire inguruan jendea lasai dago; baita ni ere...
- 2) Behar baino gehiago asmatzen ari da gai honen inguruan.
- 3) Ez, ez dut uste ezer txarrik gertatuko zaidanik, urtaroko gripeak gehiago izutzen nau.



ESTIBALIZ RODRIGUEZ, 24 urte,
kultur kudeatzailea

- 1) Ez, nire ustez ez da hain arriskutsua.
- 2) Mehatxu mediatikoa da batez ere, sendagaiak saltzeko eta jendea kontrolatua izateko aitzakia bat besterik ez.
- 3) Momentuz ez.



Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Izardui komandantea 7 behea • 945 154 220 **aralar**



ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA

harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Jose Luis
GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Florida Azoka 2 eta 3 Tl. 945 13 24 48

Andaluzia kalea 13 Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



Euskadik
behar zaitu



LAZARRAGA POETAREN LEHENGUSINA: JUANA PEREZ DE LAZARRAGA, LARREAKO AKELARREAREN ERREGINA

t. / a. kike fdz. de pinedo

1609 eta 1614 bitartean Logroñoko inkisidorek 2.000 pertsona inguru, gehienak emakumeak, sorginak zirelakoan auzipetu zituzten. Ezaguna da gehienak nafarrak zirena, baina tartean baziren arabarrak ere. Dokumentazio gehiena galdu den arren, Larrea, Araia, Ilarduia, Korres, Maeztu, Atauri eta Zekuianoko "sorginen" auziak, II guztira, gorde dira Madrilgo Artxibategi Nazionalean. Kasu guztietan euskal interpreteekin egindako deklarazio hauetan akelarreen xehetasun harrigarriak eskaintzen zaizkigu.

Agueda eta Ana, Larreako "sorginak"

Baina gaurkoan Larreako Agueda de Murua eta Ana Garciaren aitorpen-agiriei egingo diegu kasu. 14 eta 13 urteko neskato hauek 1611ko azaroan herriko apaiza zen Martin Lopez de Lazarraga Inkisizioko komisarioaren aurrean egin zuten euren aitorpena eta Ochoa Garcia de Narbaxa eskribauak jaso. Biena oso antzekoa da. Hasierako datu pertsonalak emanda, Anak bere amak astean bitan akelarrea eramaten zuela adierazten du *"untandola en las palmas y plantas, pechos, espaldas y en otras partes interiores"* eta *"que se juntaban a un prado ancho llamado Usobacochena, que en el termino de Larrea en lo alto de la sierra"* (Larreatik haize errotetara doan pista hartuta goiko larrea da, handik Araotz alde-ara doana). Aguedaren, kasuan, Hermuako Polonia Mtz. De Guereñu da akelarreratzen duena. Ukenduak egiteko erabili ohi zituzten apo berdeak zaintzea izan omen zen bion eginkizuna akelarretan (ohikoa zen lan hau adin gutxikoen esku egotea). Jarraian festa horien hainbat partaide

salatzen dituzte, tartean Larreako emakume batzuk, Ozetako ospitalzaina, eta dudarik gabe bitxiena honako hau da: *"conosco por reyna de la dicha dança como bruxa a la dicha dona Juana de Lazarraga muger de Martin Ybañes de Axpuru, dicha la Yndiana"*.


Bi aste beranduago Gasteizen Salazar inkisidorea eta hiru interpreteren aurrean "errebokazioa" egingo dute dena ukatuz, eta deklarazio guztia presio, tratatu txar eta mehatxupean eginga zegoela gaineratuz. Beste auzietan bezala honi esker libre geldituko dira (1620an inkisidore honek ediktu baten bidez akelarretako istorioak asmakizun hutsak zirela deliberatu zuen).

Joan Perez de Lazarraga poeta

Euskarazko eskuizkribu famatua 1567 inguruan idatzi zuen Joan Perez Lazarragakok, eta 1605ean zendu zenez gero, aurreko protagonista guztiak ezagutzeko aukera izan zuen. Iazko Lazarragari buruzko jardunaldietan honetaz egin genuen berba, eta Lazarragatarrek ziren Juana eta inkisidorearekin lotura familiarren bat izango zuela aurreratu genuen. Denbora pasatu zen eta bila ibili arren ez genuen lortu gure Juanaren arrastorik inon. Baina orain dela gutxi, halako batean, Gervasio di Cesare ezagutzeko zoria izan genuen. Argentinan hau Lazarragatarren ondorengoa da, eta jakin-minak bultzatuta artxibategi eta agiri ugari arakatu ditu bere Lautadako familiaren datuen bila; berari zor diogu hiru pertsonaien arteko loturen puzzlea osatzea lortu izana.

Juana Perez de Lazarraga "akelarrearen erregina"

Gure euskal idazle Joanen aitona Pero Perez de Lazarragak hainbat seme-alaba izan zituen, batzuk ezkontza barrukoak, tartean Pero edo



Agueda de Muruaren deklarazioa 1611n

Pedro gure Joanen aita; eta sasikoen artean beste Pedro bat. Azken honek Ameriketara jo eta urte batzuk beranduago indiano bihurtuta bueltatu zen Juana alabarekin. Hau da, **Joan poeta eta Juana, akelarreko erregina, lehengusu-lehengusinak ziren.** Emakume hau bitan alargundu ostean Martin Ibañez de Axpurarekin ezkondu zen. Ana Garcia auzipetuaren ama pontekoa ere bazen.

Martin Lopez de Lazarraga inkisidorea

Hau beste adarrekoa da, Etxenagusia jauregian bizi zirenetakoa. Inkisizioko komisario hau **Joan eta Juanaren hirugarren lehengusua dugu.** Eta era berean, Juanaren senarra bere koinataren neba ere bazen. Baina hemen ez da bukatzen korapiloa. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoaren bidez jakin dugu, 1634an Juana gaixorik zegoela testamentua egiteko boterea eman ziola senarrari, baita testamentu-betearazle izendatu. Bautista Ibañez de Axpuru eta Martin inkisidorearekin batera. Harrigarria benetan! Eta zirkulua borobiltzeko auzi guztietako eskribaua, Ochoa Garcia de Narbaxa, ezkondua zegoen Juanaren iloba batekin, eta hauen semeari, emango dio bere Larreako etxea aipatutako testamenduan.

Nola liteke harreman hauekin, Juana bezalako emakume noblea nahastea sorgin auzi batean?

Maila apaleko emakumeak, alargunak, eda-detuak edo oso gazteak, sendagileak edo ospe berezikoak izan ohi ziren "sorginak" alde batera utzita, inguruko herritar ugari salatu zituzten Arabako sorgin-auzi hauetan akelarreetan parte hartzeagatik, tartean, agintariak (Asparrenako merinoa, Korresko alkatea), artzapezak (Dulantzikoa) eta apaiz mordoa (tartean, Zalduondoko adarrekoa zen Graviel Lopez de Lazarraga). Mehatxu eta salaketa ugari hauekin, izua nonahi zabaldu eta Inkisizioak botere erakustaldia



Akerbeltza eta akelarreko errege-erreginak

egin nahi izan zuela ematen du. Tartean, ezinikusiak, mendekuak eta botere-lehia ere izango ziren, jakina. Juanaren kasuan, agian, komisarioak ez zuen begi onez ikusiko familiako sasiko baten alaba indianoak itzala egin izana. Zentzu berean badakigu 1614an dorreko Agustin Perez de Lazarraga, Joanen semea, auzitan ibili zela Etxenagusia jauregiko Lopez de Lazarragatarren kontra, Larreako elizako lehentasuna ("preeminencia de paz") zela eta. Artzain nobela baterako ez da materiala makala, ez horixe!! ●



Usobacochena (Elgea mendikatea) akelarre-lekua

Ibilbideak:

Argazki tailerrak

KREAk, Gasteiz fotokazetaritzaren hiriburu bihurtuko duen Periscopio programaren baitan, izen oneko adituek eskainitako argazkigintzari buruzko hiru tailer eskaintzen ditu.

Datak: 2009 urriak 28-tik 2009 azaroak 27-ra.

Izen-emateak: KREA Adierazpen Garaikidearen egoitzan, Postas 17 helbidean, 945 150 147 telefonoan edo info@kreared.com helbidean. (PLAZA MUGATUAK)

Aukeraketa: Eskatzaileen lan proiektuen interesaren arabera izango da; beraz, curriculum, motibazio-gutuna eta portfolioa aurkeztu beharko dira; hori guztia formatu digitalean, gehienez 2 orritan eta 10 eta 15 irudi artean dituztela aurkeztu beharko da. Izen-emate fitxarekin batera entregatu edo bidali beharko da.

KREA hautatutako pertsonekin harremanetan jarriko da ordainketa gauzatzeko.



'Argazkigintzako prozesu baten garapen osoa'.

Irakaslea: Matías Costa.

urriaren 28, 29 eta 30ean. 12 orduko iraupena, hiru arratsaldetan, 16:00etatik - 20:00etara.

Tailerrak argazkigintza-prozesuaren garapen osoa egiteko beharrezkoak diren jarraibideak eskainiko dizkie parte-hartzaileei; horretarako, erreferentziako proiektuen eta hori gauzatzean ematen diren fase desberdinen azterketa egingo da; beste batzuen artean, begirada pertsonalaren gaia, finantzaketa edo argazki-liburuaren prestaketa. Azkenik, parte-hartzaileen proiektuak berrikusi eta aztertuko dituzte.

Prezioa: 30 euro / 20 euro Caja Vital Kutxako txartelekin.

Matías Costa (Buenos Aires, 1973), kazetaritzan lizentziatua, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. World Press Photo saria, Leica, Unicef eta PhotoEspaña, beste batzuen artean. Fondation Hachette-k, La Caixa Fundazioak, Kultura Ministerioak eta World Press Photo Fund-ek beka emanda. El País eta El Mundo egunkariek lankidetzak egin ondoren, Agence VUko kidea da Parisen eta Panos Pictures-ekoa Londresen. Epe luzeko serietan lan egiten du, eta The New York Times edo Geo komunikabideetan argitaratu ohi dira. Lana hainbat herrialdetako arte bildumetan daude erakusgarri.



'Argazkigintza-lan bat nola editatu eta aukeratu'.

Irakaslea: Chema Conesa.

Azaroaren 2, 3 eta 4an. 9 orduko iraupena, hiru arratsaldetan, 16:00etatik - 19:00etara.

Ikastaro honen asmoa hainbat euskarritan modu profesionalean erabili behar diren irudien esanahiarekin eta erabilerarekin lan egitea da. Irudi horien aukeraketatik hasi (argazkilariaren aukeraketa) eta hedapenera arte, barneko komunikazio helburuen arabera, betiere. Banako bakoitzaren begiratzeko moduarekin, diskurtso koherentea irudiez hornitzea da helburua, azken batean, nahi den komunikazio-erabilerari aplikatu ahal izateko kontakizun pertsonala eraikitzea.



Prezioa: 30 euro / 20 euro Caja Vital Kutxako txartelekina.

Chema Conesa (Murtzia, 1952). Argazkilaria. Artearen Historian, Irudia eta Kazetaritzan lizentziaduna Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Argazkigintzako burua izan zen El Globo aldizkarian, El País Semanal-eko editore grafikoa, 1995ean, El Mundo egunkarian

igandekari berria egin zuen, 2005ean, Yo Dona aldizkaria jarri zuen martxan irudiko zuzendari gisa. Egun, Magazine igandekariko gehigarriko argazkilaritzako zuzendariordea da. Photobolsillo bilduma zuzentzen du, komisario gisa hainbat erakusketa egin ditu eta 1993tik Amsterdameko World Press Photo Fundazioko aholkuari periferikoko kidea da.

'Iluminazio-tailerra'.

Irakaslea: Luis de las Alas. Azaroaren 9, 10 eta 11n. 9 orduko iraupena, hiru arratsaldetan, 16:00etatik - 19:00etara.



Argazki eta Iluminazio tailerra. Iluminazioa barnean eta kanpoan landuko da, estudioko flash elektronikoen eta argazki-kameraren flash txikiekin.

Prezioa: 30 euro / 20 euro Caja Vital Kutxako txartelekina.

Luis de las Alas (Santander, 1965) erretratu editorialean espezializatutako fotokazetaria da. El País egunkarian lan egin ondoren, Matador aldizkariaren sortzaile-kidea eta editore grafikoa da. Egun, hainbat komunikabiderentzako egiten du lan eta argazkilaria da El Mundo egunkarian eta bertako El Magazine aldizkarian.

proposamenak

aldizkaria

BALCONADA

RADIO VITORIA, 75 URTE
09/iraila



ondarroan jaiotako eta zuian ezarritako felix beristain artistaren obra baten irudiak balconada aldizkariaren portada ilustratzen du. jadanik, gasteizko kioskoetan dago salgai 2 euroren truke, irrati-katearen 75. urteurrenaren inguruko eltziegoko gaitarien cd bat opari. bigarren industria iraultza dela eta, 60ko hamarkadan arabako hiriburuak bizi zuen hazkunde esponentzialari egiten dio erreferentzia lehenengo ale honek, hainbat edukiren bidez: santa maria katedrala hartzen du oinarri jua ignacio lasagabasterrek zinatutako artikulua edo sacamantecas hiria eta baserria nahasten dituen irudi mitikoa aztertzen du jose antonio apraizek; gainera, gasteizko merkata, montehermoso jauregia eta arquillos de olaguibel akueduktua ere gogoratzen dira, XIX. mendeko arkitektura-ekarpen handiak baitira. bestalde, garai ilun eta zailen inposaketei aurre egin zieten emakume batzuk aipatzen dituzte. eta, hiriko historiaren esparru kultural eta sozialak biltzeko, II. errepublikaren aldarrikapena, mendean zehar eskoletan izandako giroa edo heraclio fournierren estanpazioen zigiluaren inguruko irakurgaiak daude aldizkarian.

liburua

'EZ NAIZ SIRENA BAT, ETA ZER?'

KATIXA AGIRRE / EIDER EIBAR (irudiak)
[8 urtetik gorakoentzat]
ELKAR - 09/iraila
WWW.ELKARLANEAN.COM



helenari ez zaizkio igeriketa-klaseak eta igerilekua gustatzen: ura belarrietatik sartzen zaiolako, ura ahotik sartzen zaiolako, urak begiak gorri uzten dizkiolako... eta horrez gain sorkun irakasle sorgina atsegin ez duelako. errepikatu egin beharko du igeriketa-ikastaroa, baina hurrengo ikasturtean ibon izango da irakaslea, eta horrek apur bat aldatuko ditu gauzak.

cd

'HEGAZKADAK DAKAR EKAITZA'

MALENKONIA
GOR - 09/iraila
WWW.GORDISCOS.COM



iñaki goitia (bateria), aitor lamas (baxua), andoni correas (pianoa), erik zubiria (biolina), iñigo ugarte (gitarra) eta roberto ferreirok (gitarra & ahotsa) osatzen dute malenkonia, eta 'hegazkadak dakar ekaitza' beraien estudioko lehen lan luzea aurkezttera datorkigu pop-rock talde ofñatirra. seikote gazte honen energia eta freskura guztia biltzen duten 10 kanta aurki ditzakegu emozioz beteriko lan honetan, eta hong kong-go tximeleta baten hegazkadak new yorkean ekaitza sortu dezakeen bezala, 'hegazkadak dakar ekaitza'-ko 10 kantez entzulearengan zerbait berezia sortuko dute. malenkonia aireratzeko prestatzen ari da...

haien webgunetik deskarga dezakezu taldearen lehendabiziko singlea, 'haizerik gabeko eguna'.

musika

ETA UDAZKENEAN ZER?

t. uhina

Oooooooh!!! Uda bukatu da eta honekin batera oporrak eta hainbat eta hainbat gau eta saio musika entzuteko. Bai, bai... udan beti aukera gehiago ditugu musika ezberdinak entzuteko, bidaietan kultura ezberdinak ezagutzen ditugulako, egunak luzeagoak direlako eta funtsean, denbora gehiago dagoelako; eta noski, gure jarrera irekiagoa delako garai honetan, eta prest gaude askotariko gauzak ezagutu eta egiteko.



Oraingoan udazken, bete-betean gaude eta ziur etxean ordu gehiago sartuko ditugula... musika entzuten? Jakina!!! Udan dirudi kontzertu gehiago daudela, kalean mugimendu kultural gehiago dagoelako..., baina udazkenean hasten dira kontzertu interesgarrienak, garai polita bihurtuz gauza berriak aurkitu eta entzuteko.

Nik udazkena ilusioz beterik hartu ohi dut areto guztien programazioa ezagutzen dudan heinean... nire agenda kontzertuz betetzen da, musikarekin ditudan hitzorduak makina bat dira, eta nire gorputza mugitzen hasten da.

Badirudi oporretatik bueltan ilusioa galdu behar dugula, baina bat-batean gertakizun musikalak agertu ahala nire bihotz taupadak bizkortu egiten dira, nire azalaren ileak tente jartzen dira eta berriro kalera ateratzeko gogoia sortarazi egiten zait.

Musikazaleoi ez zaigu inporta zein garai den musika beti gurekin dagoelako. Etxean, mp3-an, ordenagailuan, kontzertuetan, tabernetan, kalean, goizez, arratsalde, gauez... gurekin doa uneoro gure itzala bailitzan ●

Arabako euskara, arabera eta mendebaldeko euskara

AZKEN EGUNOTAN WIKIPEDIAN AGERTZEN DIREN EUSKARA ETA EUSKALKIEN GAINKO ZENBAIT ARTIKULU IRAKURRI DITUGU, BAI GAZTELANIAZ, BAI EUSKARAZ. GASTEIZTARRAK IZANDA, BEREKIZIKO INTERESA GENUEN ARABAKO EUSKARAZ ESANDAKOAREKIN. WIKIPEDIAN SARTUZ GERO, “EUSKALKIAK” (“DIALECTOS DEL EUSKERA”) KATEGORIAN GURE HERRIALDEKO EUSKARAREN GAINKO ARTIKULUAK TOPATUKO DITUZUE: “ARABAKO EUSKALKIA” ETA “MENDEBALDEKO EUSKARA”, ETA HORIEN GAZTELERAZKO BERTSIOAK: “DIALECTO ALAVÉS DEL EUSKERA” ETA “DIALECTO OCCIDENTAL DEL EUSKERA”. HAIN ZUZEN ERE, ORRIALDE HAUETAN IRAKURRITAKOAK WIKIPEDIAN AGERTUTAKO ZENBAIT TERMINO ETA AZALPENEN INGURUKO ARTIKULU HAU, EDO HOBETO ESANDA,

HAUSNARKETA HAU IDAZTERA BULTZATU GAITU, BERTAN AGERTUTAKOAK ZENBAITETAN NAHASMENA SORTU DEZAKEELA USTE BAITUGU. OROKORREAN, ARTIKULU HAUETAKO IDAZKERAK PENTSARAZI DEZAKE ARABAKO EUSKARAK EZ DUELA BURUHAUSTERIK SORTZEN. HORRELA, EZAGUNAK DIREN DATUEKIN BATERA, GAUR EGUNGO ADITUAK AZALTZEKO KAPAZ IZAN EZ DIREN ARAZO-EI BURUZKO BAIEZTAPENAK EGITEN DIRA (ADIBIDEZ, BIZKAIERAK ARABERA BEREĠATU ZUEN TANKERAKOAK, EDO ARABAKO EUSKAL TESTUAK ARABERAREN ZEIN BIZKAIERAREN LAGINTZAT HARTZEA...). EGIA ESAN, AILEGATU ZAIZKIGUN LEKUKOTASUNEN BIDEZ, ADITUAK GURE HERRIALDEKO EUSKARA AHALIK ETA MODU ZEHATZENEAN SAILKATZEN SAIATZEN DIRA, ETA TEORIA DIFERENTEAK EGON ARREN, DATU GEHIAGO EZ DAUDEN BITARTEAN, EZ DAGO HAINBAT ZALANTZA ARGITZERIK. ESPERO DEZAGUN LEKUKOTASUN GEHIAGO AGERTZEA. JARRAIAN, EUSKARA ARABARRA GAINONTZEKO EUSKALKIEN ARTEAN SAILKATZERAKO ORDUAN DAUDEN ZENBAIT TEORIA AZALTZEN DIRA, LAGUNGARRIA IZAN DAITEKEELAKOAN.



imanol garcia uriarte eta ignacio carrera garmendia
euskal filologian lizentziadunak eta 'legutiano aldeko euskara' liburuaren egileak

Ezer baino lehen, zenbait termino bereiztu beharko lirateke, besteak beste *Arabako euskara*, *Arabera* eta *Mendebaldeko Euskara* (bizkaiera deitu ohi dena). Gure ustez, *Arabako euskara* terminoak erreferentzia egiten dio Araba lurraldeko euskarari, hau da, Baranbion egiten zen euskara edo Legutio egiten dena Arabako euskara dira, bai Baranbio, bai Legutio Arabakoak baitira. Ezberdina litzateke, berriz, *Araberaren* gainean edo *mendebaldeko euskararen* gainean arituko bagina, termino hauek euskalkiei erreferentzia egiten dietelako.

Gaiari heldu aurretik, komeni da jakitea historikoki Arabako euskararen gainean esandakoa. Horrela 1657an Oihenartek gipuzkerarekin lotu zuen eta zera esan zuen:

"La forma navarra difiere no poco de ésta (Ipar Euskal Herriko euskara), más la de la Vardulia, o sea de Guipúzcoa y Alava, más que ninguna la autrigónica, o bizcaína".

Larramendik 1729an argitaratutako gramatikan tarteko hizkeratzat jo zuen:

"El Bascuence tiene el dialecto guipuzcoano, del Señorío o bizcaíno, y navarro o labortano, que comúnmente es uno mismo, aunque hay bastante mezcla de los demás dialectos; y es también lo que sucede en Alaba, que participa de todos ellos, más o menos sincopados y variados".

Urte batzuk geroago (1745), berriz, bere hiztegian Bizkaikoarekin lotu zuen:

"A tres dialectos principales reduciremos todos los que tiene el Bascuence, al navarro, al bizcaíno, y al guipuzcoano (...). No hago mención particular de Alaba, porque en lo general su dialecto es el bizcaíno, y también en lo general el dialecto del bascuence francés, es el navarro".

Gainera, bizkaieraren eremuaz berba egitean, hauxe azaldu zuen:

"Este se habla en el Señorío generalmente, y también por lo común en Alaba, y en los lugares rayanos a Guipúzcoa".

Aurrerago idatzi zuen *Corografía de Guipúzcoa* liburuan honako euskalki hauek aipatu zituen: zuberera, lapurtera (Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garaian), bizkaiera eta gipuzkera, eta Arabako euskaraz, zera esan zuen:

"El dialecto de Alaba en lo más es el mismo de Vizcaya, no en el todo".

Añibarrok XIX. mendean tarteko hizkeratzat jo zuen:

"Esta (Nafarroa), y la provincia de Alaba tienen bastante mezcla, y participan de los dialectos de sus provincias vecinas".

Honen guztiaren arabera, ematen du betidanik egon direla arazok Arabako euskara sailkatzerako orduan.

Arabera edo Arabako euskalkia, aditu zenbaitek erabilitako termi-

noa da, Araban gaur egun galduta dagoen euskalki bati erreferentzia eginez. Aditu hauen artean, Koldo Mitxelena aipagarriena dugu. Mitxelenak uste zuen Araban euskalki propio bat zegoela, gainerakoetatik bereizten zena, euskalki bereizgarritzat hartua izateko ezaugarri propio nahikorik zuena. Ondorio honetara ailegatzeko 1562an Nicolao Landuchio italiarrak Gasteizen atunduriko lehenengo euskara hiztegia (*Dictionarium Linguae Cantabrigiae, Bocabularioa ezqueraz jaquiteco eta ezqueraz verba eguiteco*, 6.000 hitz ingurukoa) hartu zuen kontuan. Mitxelenak Manuel Agudekin batera argitaratutako hiztegi honen 1958ko edizioan *Hegoaldeko euskara (vascuence meridional)* izena eman zion Arabako euskalki honi.

Beste batzuek, ordea, Koldo Zuazo dialektologoak besteak beste, *arabera* edo *hegoaldeko euskara* delakoa *mendebaldeko euskararen*¹ barruan sailkatu behar dela uste dute. Zuazok aipatu hiztegia Arabako euskara islatzen duten beste testu batzuekin erkatu egiten du (testu horietako batzuk ezezagunak ziren Mitxelenaren garaian). Testuok Arabako eskualde ezberdinetakoak dira, baita garai ezberdinetakoak ere. Honako hauek inportanteenak lirateke:

- *Dictionarium linguae cantabrigiae* (*Bocabularioa ezqueraz jaquiteco eta ezqueraz verba eguiteco*), 1562an Nicolao Landuchio italiarrak Gasteizen (ia ziurtasun osoz) atondutakoa.
- Agertu berri den Larreako Juan Perez de Lazarragak idatzitako eskuizkribua, 1564-1567 bitartekoa.
- Betolatzakoa zen Juan Perez de Betolazak idatzitako kristau ikasbidea, *Doctrina Cristiana en Romance y Bascuence*, 1596koa, euskaraz gordetzen den zaharrena dena.
- 1610ean Iruñean egindako erlijio poesiaren lehiaketan Martin Portalek idatzitako olerkia (nahiz eta egile hau nongotarra zen jakin ez, zenbaitek arabarra zela uste dute).
- Sabandoko Juan Bautista Gamiz jesuitak idatzitako euskarazko olerkiak, XVIII. mendekoak.
- Julian Garcia de Albeniz araiarrak XVIII. mendean idatzitako ototza (*Acto contricioraco eriotzaco orduracò*).

Koldo Zuazoren ustez, Araban badaude zenbait ezaugarri berta-koak direnak edota bertan sortutakoak, baina ezaugarriok ez dute pisu nahikorik euskalki propio bat osatzeko. Horrela, testuotan islatzen diren hizkerak *mendebaldeko euskararenak* lirateke. Are gehiago, dialektologo berak 2007. urte amaieran argitaratu artikulua batean gaur egungo euskalkien sorrera Erdi Aroan dagoela esaten du. Bere ikerketaren arabera, *mendebaldeko euskararen* kasuan, euskalki honetako hainbat ezaugarri Gasteizen sortu eta handik lau haizetara hedatu ziren.

¹ Mendebaldeko euskara *bizkaiera* deitu ohi den euskalkia da. Aditu zenbaitek "Mendebaldeko euskara" izenaren aldekoak dira, euskalki hau Bizkaian ez ezik, Gipuzkoako zati batean zein Araban ere berba egiten baita.

² Legutio izen ofiziala den arren, inguruko euskaldun askok Bilerle esaten dute.

Dena den, aurreko idatziak zein toponimia kontuan hartuz, Zuazok Arabako euskara historikoa hiru eremutan banatzen du: *sartaldekoa*, *erdialdekoa* eta *sortaldekoa*.

Arabaren euskalki ezberdin bat egon zela pentsatzen dutenek, berriz, *arabera* (edo *hegoaldeko euskara*) *mendebaldeko euskara*-rekin (edo *bizkaiera*) antzekotasun nabarmenak izan arren, lurralde honetan topatutako testu hauek gaur egun desagertuta dagoen euskalki baten isla direla mantentzen dute, zenbait ezaugarri pisu gehiago emanez.

Aipatzekoa da zenbaitetan Perez de Lazarragaren eskuizkribua XVI. mendeko *mendebaldeko euskararen* eredutzat hartzen dela, eta beste batzuetan, berriz, desagertutako *arabaren* eredutzat, hau egitean ezberdinak ei diren euskalki biak baliokidetzen baitira.

Beste aldetik, ezin dugu ahaztu XIX. mendean euskal dialektologiaren sorrera dugula. Egindako ikerketen artean, ziur aski Bonaparte Printzeak egindakoa garrantzitsuenak daukagu. Araban geratzen zen euskara *bizkaieraren* barruan sailkatu zuen. Hona hemen Bonapartek Araban egindako sailkapena:

Bizkaieraren mendebaldeko azpieuskalkiaren barruan:

- *Gernikako barietatearen* barruan dagoen *Arabako azpibarietatea*:
 - Etxaguen, Murua, Okoizta, Zestabe, Maurga, Gopegi, Ondategi, Olano, Eribe, Berrikao, Buruaga, Betolatza, Ziriano, Luku, Nafarrate, Urrunaga, Goiaín eta Urbina.
- *Arrigorriagako barietatearen* barruan dagoen *Hegoaldeko azpibarietatea*: Audio eta Luiaondo.
- *Orozkoko barietatearen*: Baranbio, Lezama, Larrinbe eta Astobitza.
- *Otxandio barietatearen* barruan dagoen *Oletako azpibarietatea*:
 - Oleta.
- *Otxandio barietatearen* barruan dagoen *Legutioko azpibarietatea*:
 - Legutio eta Elosu.

Bizkaieraren Gipuzkoako azpieuskalkiaren barruan dagoen Aramaio azpibarietatea:

- Ibarra, Gantzaga, Etxaguen, Arexola, Barajuen, Untzilla, Uribarri, Azkoaga, Elgea, Larrintzar, Marieta, Larrea, Hermua, Ozaeta, Zuhatsu-Ganboa, Uribarri-Ganboa eta Landa.

Gaur egun, Aramaio herri, elizate eta auzoetan, Oletan (Aramaio udalerrikoa izan arren, bailaratik kanpo dago, kontzeju propioa du, eta euskara ere, bestelakoa du) eta Legutio² udalerrian jatorrizko euskara mantentzen dute, mendebaldeko euskararen eremuan sartzen dena. Horrela, Zuazok egindako sailkapenaren arabera, Aramaio bailaran egiten dena mendebaldeko euskararen sortaldeko azpieuskalkiaren barruan dagoen bitartean, Legutio udalerrian eta Oletan egiten dena mendebaldeko euskararen sartalde eta sortalde azpieuskalkien tarteko hizkeratzat hartuak dira.

Aurreko sailkapenaren arabera, beraz, Arabako euskara *mendebaldeko euskararekin* edo *bizkaierarekin* lotzen da. Edozelan ere, zenbait galderari, momentuz, ezin zaie erantzun:

- 1.- Egon zen Araban euskalki bat ("*arabera*", "*hegoaldeko euskara*"...), zonalde batzuetan *gipuzkera* edota *nafrerarekin* nola baiteko lotura izan arren, eta orokorrean *mendebaldeko euskaratik* gertu egonda ere, gainerakoetatik bereizten zena?
- 2.- Arabako euskara lurralde osoan zehar homogeneousa izan ez arren, eta ezaugarri zenbait Araban bertan sortuak izan daitezkeen arren, *mendebaldeko euskararen* barruan sartu behar da?
- 3.- Arabako euskara *mendebaldeko euskaratzat* hartu behar balitz, zergatik esan behar *mendebaldeko euskara* edo *bizkaiera*, eta ez *mendebaldeko euskara* edo *arabera*?

Ezin amaitu esan barik, Araba osoari dagokionez, azken datuen arabera, ia 75.000 arabar euskaldunak direla, biztanle guztien % 25 inguruan (udalerri euskaldunenak, euskal hiztunen proportzioari dagokionez, Aramaio (% 82,5) eta Legutio (% 37) direlarik). Egutero milaka arabarrek egiten dute euskaraz, beraz, baina lehena go aipatutako jatorrizko hizkerak alde batera utzita, nolakoa da, adibidez, gasteiztar euskaldun gehienek egiten duten euskara? Edo hobeto esanda, nolakoak dira Gasteizko euskaldunek egiten dituzten euskarak? Euskara horiek guztiak Arabakoak ote dira? Ez dira XXI. mendeko *Arabako euskararen* barruan sartu behar? Bonapartek XIX. mendean egindako maparen euskal eremuan sartzen ez bagara, ez gara benetako euskalduntzat hartuak izan behar? ●

Bibliografia:

- Breñas, Estibalitz; Otsoa de Alda, Jabi. "Arabako Euskal Hotsak". Gasteiz: GEU aldizkaria, 2002.
- Zuazo, Koldo. "Arabarrak Euskararen Herrian". Gasteiz: Arabera, 1999.
- Zuazo, Koldo. "Euskalkiak. Herriaren lekukoak". Donostia: Elkar, 2003.
- Koldo Zuazo, "Euskalkien jatorriaz eta bilakaeraz", Berria 2007-XII-9
- Knörr, Henrike. "Arabako euskarari buruz jakin behar dena". Gasteiz: Vital Kutxa Fundazioa, 1998.
- Knörr, Henrike; Zuazo, Koldo. "Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak". Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1998.
- Carrera Garmendia, Ignacio M.; García Uriarte, Imanol. "Legutiano aldeko euskara". Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 2005.



m. josean morlesin



historia zutabea 'Gure Izarra' (II)

t. erlantz urtasun antzano, historialaria

Aurrekoan genioenez, XIX. mendean 'Gure Izarra' izeneko argitalpen euskaltzalea jaio zen, horren asmoa arabar euskaldunei albisteak euskaraz helaraztea zelarik.

Bada, honako informazioa karrikaratu zuten 1888ko urrian: "Ozaetaco erriyarekiñ, bere aldameneco erri chikibat, Otaza len bat egiña zegoan cargatic etzeucan familia ado bi baizic azpaldi onetan, baño orain docena erdibat urte, Dn Pedro Velascoc, Vitoriyaco bi aberatz oyec erri gustiya erostec asmua artuzuten eta alcantzatu zuten Ozaetatic alderatzia beren asmuco Otaza. Arrezkero Jaun oyec gichica gichica ya erri guciyaren jabe egiñac dira, baño ezda egongo Parisen eche samaric erri au baño gichiago costatacoric".

Begibistan da, beraz, albisteak ez ezik, informazio landua, kritikoa ere eskaintzen zutela orduko kazetariak Araban gertatzen ari zenaz. Eta ez da, ez horixe, garrantzi tikikoa aipatzen dutena: nagusiak, txiroak, prezioak, lurrak, etxeak... Erran nahi baita historiarako iturri erakargarria dela erakusten ari garena.

Eta honela jarraitzen zuten, "gizon zarrac diyote bicicirala erri onetan demorabaten amazortzi edo ogei familia bere apaizarekiñ; erri onec dauca bere elisa galanta eta ermita bat. Probintziaco aldeonetan lurrac ematendituan generuac gariya, artoa, patata eta babarruna, oyec dira printzipalenac. Toki oyetan lurrac oso gichi ematendu; anegabat gari eraiñ da sei artzenbadira, jendea contentu izango da; ala ta guci ere patata artzeco ez dira lur charrac. Aurten gari urte ona izan da. Patatac eta artoac ezdaucate ichura ona cergatic euri gichi eginduan uda onetan".


Eta berriz ere diogu, uda hasieran bezalaxe, honek ederki erakusten digula, zinez, eta 'Geu' maitagarriak ia bakardadean burutzen duen ezinbertzeko lana ezin ahortziz, beti izan dela posiblea, zer arraio, Arabako egunerokotasunaz euskaraz aritzea, irakurle, baita euskara zokoraturik eta desagerraraztear zutelarik ere! Eutsi bada! ●



geusex@emaize.com

**Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik
ala jakin-minik al duzu?**

**Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko
arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.**



**Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:
geusex@emaize.com**

Emaize Sexologia Zentroko profesionalek erantzungo dizute.

emaize sexologia zentroa. gizon eta emakumeentzako arreta
bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

**Larunbatean pertsona bat ezagutu nuen eta penetrazioa
kondoirik gabe egin genuen. Hiesa hartu ote dudan beldur
naiz, nola jakin dezaket?**



Hiesa GIB birusak eragindako gaixotasun kutsakorra da. GIBa pertsona kutsatu baten gorputzetik, beste baten gorputzera hiru modutara pasa daiteke: sexu harreman (babesik gabeko bagina eta uzkioko koitoa eta ahozko sexua, miazkatzen duenak ahoan zauria badu), odol harreman eta amak umeari haurdunaldiaren bidez.

GIBa lanean hasiko da eta luzean ez du sintomarik emango, begi-bistaz ezinezkoa eginez norbaitek birusa duen jakitea. 3 eta 12 aste bitarteko epea (leiho epea) beharrezkoa da gure baitan dugun jakiteko. GIB probak, epe hau pasa baino lehen eginez ez du emaitza fidagarririk ematen. Epe honetan GIBa izanez gero, nahiz eta ez detektatu, transmititu genezake.

GIBa hartzeko arriskua egindako jokabidearen menpe dago eta ez egiten duen pertsonaren menpe, hau da, ez dago arrisku talderik, arrisku jokabideak baizik. Arrisku gabeko harreman erotikoak izanez gero, momentuan gozatzeaz gain, ondoren ere goza daiteke, infekzioen mamua ez baita agertuko.

Proba doakoa da eta Gasteizen Osasun zentroetan, Etengabeko Atentzioko Gunean (EAG), eta Hiesaren Kontrako Batzordean egiten da (bi azkenetan proba anonimoa eta aurreko hitzordu gabea da).

EAG-n:

Santiago kalea, 7

Asteazkenetan 8:30-12:30.

Emaizta astebetean.

ARABAKO HIESAREN KONTRAKO BATZORDEA (SIDALAVA):

San Francisco kalea, 2-1.

Astelehenetik ostiralera 14:00-15:00, eta asteazkenetan 18:00-19:30.


Emaizta 10 minututan.

GIBa duzun jakin nahi izanez gero arrisku jokabidetik 3 hilabetera proba egin ezazu (azkarra eta min gabekoa da) eta babestutako harremanak izan itzazu ●

errezeta

diocesanas-mendizorrotzako ostalaritza eskola

TXOKOLATEZKO PASTELA (BROWNIE)



Osagaiak

Estaldura 200 g

Gurina 120 g

Arrautzak 200 g

Lustre-azukrea 200 g

Irina 260 g

Kakao-hautsa 20 g

Bultzatzailea 5 g

Elaborazio prozesua:

Estaldura urtu, gurina eta azukrea gehitu eta irabiagailuan jarri harrotzeko, tarteka, arrautzak gehitu. Espatularekin, aurretik nahastutako irina, bultzatzailea eta kakaoa nahastu. Koipeztatutako edo paperez estalitako moldeetan labean sartu, su ertainetan. 180ºtan 40 min. Denbora alda daiteke erabilitako moldearen arabera.

OHARRA: almendrak, intxaurrak eta abar eranstea aukera ere badago ●





KREA

EXPRESIÓN CONTEMPORÁNEA

Caja Vital  Vital Kutxa

KREA ADIERAZPEN GARAIKIDEA
SORKUNTZA ETA EGUNGO KULTURAREN
INGURUKO ZENTROA

WWW.KREARED.COM
INFO@KREARED.COM
TEL 945 150 147

KREA UDAZKENA IKASTOLETARA HELDU DA

- Antzerkia
- Komikia
- Poesia
- Lehiaketak
- Tailerrak
- Komikaren oinarritzko gida

MINTZALAGUNA

Gurekin
gelditu

Kirola egin

Pote bat
hartu

Parkean ibili

NAHI
DUZU?

Ruperren
kontzertura
hurbildu



txokoan
afaldu

zinemara
joan



Gorbeia igo
jai bat
montatu

MINTZALAGUNA
EUSKALDUNON MUNDUA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Diputación Foral de Álava
Arabako Foru Aldundia



Diario
Eres lo que lees

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa